



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO PREMIAZKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

zinegotziak

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2013ko urriaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. PREMIATASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Alkateak, hitza harturik, dio:

Premiatusunezko bilkuraren justifikazioa, hainbat mozio epean onartu beharra da.

Premiatusunezko bilkura egiteko proposamena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

AGENDA 21 – EKINTZA PLANA ONARTZEA

Tokiko Agenda 21 – Behin betiko ekintza plan hau osatzeko, lehendabizi, Diagnostikoaren ondorioetatik abiatuz, herriaren norabidea hurrengo urteetan zuzenduko duen helburu batzuk finkatu dira.

Ekintza hauek, herritarrek (elkarrizketetan, Herri Batzarretan eta bestelako ekintzetan), udal teknikariek eta udal ordezkariak proposatutakoak dira. Ekintza Plana herritarrekin lantzeko egindako Herri Batzarrean, Lizartzako Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean, bigarrena, herritarrek lehentasunezko jotzen dituzten ekintzak identifikatu dira.

Herritarren lehentasunak ezagutu ondoren, Udal ordezkariekin egindako bileran Lizartzako Udalak bere egiten duen Behin Betiko Plana osatu da. Dokumentu honen



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

lehen atalean Helburuak zehazten dira eta ondoren Ekintza Plana osatzen duten Ekintzak.

Hau horrela dela eta udalkideek dagoeneko Behin-betiko Ekintza Planaren edukina sakonki aztertu dutenez, aho batez honakoa erabakitzen dute:

LEHENA.- Lizartzako Tokiko Agenda 21 prozesua martxan jarri ostean (Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru-laguntzarekin), udalbatzak ondoko dokumentuak onartu ditu:

- LIZARTZAKO TOKIKO AGENDA 21aren DIAGNOSTIKOA
- LIZARTZAKO TOKIKO EKINTZA PLANA – 2014 - 2021

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:30etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia